

505 bezeroa

Alberto Ladron Arana

Julene Azpeitia ipuin lehiaketa
2004



Zumaiko Udala

*enkar
txanpu*



505 bezeroa

Alberto Ladron Arana

Julene Azpeitia 17. ipuin lehiaketa

2004

1. saria

Zumaiian Julene Azpeitia ipuin lehiaketaren 25. urteurrena ospatzeko egindako digitalizazioaren emaitza, 2012ko irailean.

© Alberto Ladron Arana (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Laguntzailea: KUTXA

—20..ko abenduaren 12a:

505 bezeroa atera egin da komatik, goizeko 9:36an. Bizi neurri guztiak egokiak dira (xehetasun gehiagorako, ikusi gehigarria). Nahasmen handiko erantzunak eman ditu neurotestetan. Zailtasun nabarmenak ditu hitz egiteko eta begiak fokatzeko. Bere emaztea ez duela ezagutzen adierazi du. Estura eta larritasun handiak agertu ditu. Dena normaltasunaren barnean. Zain bidezko lasaigarriak eman zaizkio, haren gogo egoera kontrolatzeko.

Itxaron egin beharko dugu azken lau urteak koma egoeran eman dituela jakinarazi baino lehen.

—20..ko otsailaren 15a:

Errehabilitazio prozesua martxa onean dabil. 505ek gogotsu egiten ditu ariketak eta test fisiko zein psikologikoetan emaitza itxaropentsuak ematen ditu: zantzu guztien arabera, koma bitartean saiaturiko terapia berriek on nabarmena egin diote. Dena den, 505 berehala nekatzen da eta zorabio arinak izaten ditu noizbehinka. Ariketarik ezaren ondorioz gihar sistema erabat indarge dauka. Hala ere, sendagile talde honen iritzia nahiko baikorra da: 505 bezeroa gizon indartsu eta gaztea da.

Komaren aurreko bizipenen oroipenek erabat galduta ematen dute. 505 historiari gabeko gizona da. Laster hasi beharko dugu bere egoerari buruzko galdera deserosoei erantzuten.

—20..ko otsailaren 21a:

505en emazteak laguntzeko gogo handia erakutsi du. Antzeko beste kasu batzuk aintzat hartuta, badakigu haren laguntza ezinbestekoa izanen zaigula. Badirudi ongi ulertu dituela programaren helburuak eta prozedurak. Gure elkarlanaren bitartez, 505 hasi da azken lau urteak ulertzen eta onartzen.

Argi eta garbi adierazi diogu emazteari balitekeela 505 nahiko aldaturik egotea. Emazteak prest egon behar du ezagutu zuen gizonarengan ezohiko portaerak ikusteko. Alde horretatik, ordea, itxaropen ustelak erakutsi ditu emazteak. Hitzez hitz, honakoa adierazi digu: "Badakit barne-barnean nire

senarra izaten jarraitzen duela". Pentsaera zurrun hau, beharbada, terapiarako traba izan daiteke, batez ere terapiaren ondorioak ez onartuz gero. Nolanahi ere, oraingoz ez dugu neurririk hartuko.

505en egoeraren bilakaerak agintzen du. Kasu honen berebiziko garrantzia aintzat hartuta, badakigu ezin dugula akatsik egin. Begi asko daude guri begira.

—20..ko apirilaren 1a:

505 bezeroak senda agiria jaso du. Astean bitan ariketak egin beharko ditu ospitalean. Etxean egiteko programa zorrotz bat ere ezarri zaio. Oraindik laguntza behar du ibiltzeko eta berehala nekatzen da. Bere kasa jaten eta janzten ikasi beharko du, baina horiek arian-arian egiteko urratsak dira. Espero izatekoa da haren egoera fisikoak laster hobera egitea.

505ren buruak, ordea, mantsoago egingen du aurrera: azken batean, bere izaera berriarekin bizitzen ikasi behar du. Alde askotatik, 505 gizon jaio berria da, eta oroitzapenak, ideiak, sentimenduak ia ezerezetik landu beharko ditu. Prozesu latz honetan, ezinbestekoa izanen du gure laguntza aurrera egiteko. Itxaropen handiak ditugu 505rekin saiaturiko koma bitarteko ikasketa programa berrietan. Emaitzak berehala ikusiko ditugu.

Zorionez, emazteak elkarlanerako gogo handia erakutsi du. 505ek oraindik ez ezagutzeak kezkatu egiten du, baina berak ere itxaropen handia dauka. Hitzez hitz: "Maitasunak oztopo guztiak gainditzen ditu".

Programaren martxa egokiaren izenean, nahiago izan dugu egia ez erratea: 505ek sekula ez du oroimena berreskuratuko, alegia.

—20..ko maiatzaren 20a:

505 bezeroaren bilakaera itxaropentsua da oso. Azterketa fisikoaren emaitzak akasgabeak dira. Giharren tonua eta mugimenduen zehaztasuna aski berreskuraturik ditu. Neurotesten arabera, haren oroimen urruna erabat galduta dago. Hala ere, ez du galderarik egiten, eta ez dakigu hori ona den ala ez. Azken hilabete hauetako oroitzapenak, ordea, normalak dira.

505 ongi moldatzen da bere emaztearekin. Hau pozik azaldu da gurekin izaniko elkarrizketetan. Hitzez hitz: "Uste dut berriz ere maitatzen hasi zaidala". Sexu harremanak baimentzeko eskaera egin digu emazteak. Oraingoz, baina, talde honen iritzia kontrakoa da. Emazteari adierazi zaio oraindik oso goiz dela horretarako. Ez dakigu nolako eragina izanen duten halako asaldurek 505en buru-orekan.

—20..ko ekainaren 30a:

505ek oso emaitza onak eman ditu neurotestetan (ikusitako gehigarriko 4-10 orrialdeak). Nabarmentzeko modukoa da iritzi testetan ateratako emaitza: 95 puntu.

Emaztearen arabera, baina, 505ek sexu grina bizia azaltzen du. Hala ere, haren hitzek ez dute sinesgarritasun handirik: Steinerrek eta Drexlerren

esperimentuek zalantzarik gabe frogatu dute koma bitarteko programek erabat murrizten dutela libidoa. Oraingoz itxaroteko gomendioa eman zaio emazteari, bere senarraren onerako. Arduragabekeria litzateke 505 gehiegi asaldatzea. Emaztearen erantzuna, hitzez hitz: "Erraz hitz egiten da".

Xehetasun horiek alde batera utzita, 505ren egoera fisiko zein psikologiko pozgarriak honako erabaki hau hartzera bultzatu gaitu: 505 lanean lehen bai lehen hasteko gomendioa ematen dugu.

—20..ko uztailaren 10a:

505 bezeroa *Baketek* enpresan hasi da lanean. Emazteak adierazi du 505ek lan egiteko nahi handia zuela. Hitzez hitz: "Aspertu egiten zen etxean". Komaren aurreko bere lanaren antzeko lanpostu bat aukeratu zaio: itsasontzietarako kanoi tutuak egiteko "Pacemaker-1009" makina baten kontrolean arituko da. *Bakete*keko zuzendaritzak elkarlanerako gogo sutua erakutsi digu. Erraztasun guztiak emanen dizkigute. 505 langileari buruzko asteroko txostenak bidaltzeko konpromisoa hartu dute.

Sexu harremanen kontuari buruz galdetuta, erantzun iheskorrak eman dizkigu emazteak. Berriz ere gogoratu zaio debeku honen garrantzia. Aztertzeko moduko aukera da emazteari ere botika programa bat ezartzea. Hala ere, ez dugu zertan kezka handirik izan: botikek nabarmen murrizten dute sexu gaitasuna: nahi izanda ere (oso zalantzarria), 505ek ezin izanen luke sexu harreman osorik eduki.

—20..ko uztailaren 30a:

*Bakete*keko zuzendaritzaren txostenak pozgarriak dira oso. 505 langileak ederki betetzen ditu agintzen zaizkion betebeharrak, esaneko eta gogotsu. Ordutegia ongi jarraitzen du. Haren produktibitate zenbakiak oso altuak dira (ikusi gehigarria). Gogo ona erakusten du uneoro eta harreman egokiak ditu bere lankideekin. Lan-arduradunek kexarik batere ez dute haren portaerari buruz.

Botika programa arin murrizteko erabakia hartu dugu. Emaztea ere oso pozik azaldu da. Hitzez hitz: "Gero eta gehiago maite nau". Hala ere, itxaropen ustelak ez izateko gomendioa egin diogu.

— 20..ko irailaren 30a:

*Bakete*ken txostena nahiko ona da. 505 langileak ederki betetzen ditu bere eginbeharrak, garaiz eta modu egokian. Haren produktibitate zenbakiak batez bestekoa baino %20 altuagoak dira (ikusi gehigarria). Esperimentu gisa, lan arduradunek bi egunetan ordu gehiagoz lan egiteko proposamena egin zioten. Arazorik gabe onartu zuen 505ek. Hala ere, halako esperimentuak arriskutsuak izan daitezkeenez, oraingoz ez egiteko gomendatu zaio *Bakete*ki.

*Bakete*ken txostenaren arabera, irailaren 21ean garrantzirik gabeko gorabehera bat izan zuen 505ek lan arduradun batekin, lantokian dagoen gehiegizko zarata dela eta. Lantegiko bideokamerek grabaturiko irudiak aztertuta, kezkarako motiborik ez dagoela ondorioztatzen dugu: ez 505en

adierazpenek ez haren gorputz mintzairak ez zuten arriskurik nabarmentzen. Nolanahi ere, ezin diegu ezikusiarena egin halako atzerapausoei.

Badaezpada ere, bertan behera utzi dugu hil honetarako aurreikusita zegoen botika programaren murrizketa.

—20..ko urriaren 30a:

505en jokaera-zenbakiek ezegonkortasun nabarmena erakusten dute. Haren produktibitatea %10 jaitsi egin da, nahiz eta oraingoz batez bestekoa baino altuagoa izan. Kalapitak izan ditu lan-arduradunekin, hilaren 12, 15 eta 21ean (ikus gehigarria). Botika programa, hala ere, modu egokian segitzen du. Goizegi da haren portaera desegokirako arrazoiak asmatzeko.

Emazteak berretsi digu elkarlanerako gogo ona daukela. Adierazten digu 505ek gero eta kezka handiagoak darabiltzala lan egoerari buruz. Soldata apalak, ordutegi desegokiak eta lantegiko giro kaskarra dira, besteak beste, haren kexa iturri nagusiak. Are okerragoa, asaldura larriz hitz egiten du kontu horien gainean.

Loa gaizki egiten du bezeroak: kosta egiten zaio lokartzea eta sarri esnatzen da gauean zehar. Zorrotz galdekatuta, emazteak onartu du azken hilabete hauetan sexu harremanak izan dituztela. Giza faktoreak norainoko garrantzia duen erakusten digu horrek. Libidoa amatatzeko botika programa bat ezarri zaio emazteari. Hitzez hitz: "Dena egiteko prest nago nire senarraren alde".

Neurotest elektronikoek berresten dute 505ek ez duela oroimena berreskuratu. Botika programa emendatu egin zaio.

—20..ko azaroaren 30a:

505en jokaera kontrolik gabe dago. *Bakete*ken txostenaren arabera, hilaren 15ean kalapita bortitza izan zuen lan arduradun batekin, eta sudurra hautsi zion. Are okerragoa: liskarra ikusi zuten langileek txalotu egin zuten 505en jarrera.

Hilaren 18an, langileek bilkura egin zuten lan egoeraz hitz egiteko. *Bakete*keko zuzendaritzaren kaleratze eta soldata murrizketen mehatxua gorabehera, langileek hamar puntuko eskakizun agiri bat sinatu zuten (ikus gehigarria). Ezkutuko kamerek argi eta garbi erakusten dute 505 izan zela bilkuraren buru eta liderra.

*Bakete*keko zuzendaritzak programa bertan behera uzteko nahia adierazi du, baina talde honen iritziz, goizegi da halako erabakiak hartzeko. Garrantzi handiko datuak lortzen ari gara terapia berriari buruz. 505en kasua aukera paregabea da, eta laborategian lortu ezinezko jakingarri baliotsuak ematen dizkigu.

Beste azalpenik ezean, eta emaztearen adierazpenak gorabehera, susmoa dugu 505ek botikak hartzeari utzi ote dion. Langilearen lo-zenbakiek oso joera txarra erakusten dute. Amesgaizto ugari dituela adierazten digu berak.

Ezkutuko testetan ere zenbaki kezkarriak atera ditu 505ek (ikus gehigarria). Erradikaltasun testak, adibidez, 85 puntuko emaitza eman zuen.

—20..ko abenduaren 15a:

*Bakete*ken lantegietako grebak bi aste bete ditu eta langileen jarrera gero eta bortitzagoa da. Poliziarekin izaniko istiluek hamabost zauritu eragin dituzte jadanik. 505 protesta ekintza guztietan nabarmendu da, bere lankideen haserrea hauspotuz. Haren egoskorkeriak ez du mugarik. Langileei eginiko ezkutuko testek erradikaltasun zenbaki arriskutsuak adierazten dituzte. *Bakete*keko zuzendaritzak gurekin daukan kontratua hausteko mehatxua egin du.

505en emazteak beste aukera bat eskatu digu bere senarrerako. Hitzez hitz: "Ez da gaiztoa. Justiziaren sen gehiegizkoa dauka bakarrik." Argi dago berak ere ez duela botika programa hartzen.

—20..ko abenduaren 22a:

Debeku eta zentsura guztien gorabehera, *Bakete*ken lantegiko sarraskiaren albisteak mundu osoan zabaltzen ari dira, ezkutuko bideak erabiliz. Muturreko talde guztiak nahasmena erabiltzen ari dira beren helburu ilunen alde.

Hainbat gobernuk beren kezkek helarazi dizkigute: dirutza handiak ezarri dituzte langileei zuzenduriko gure programetan. *Bakete*ken lantegiko propaganda horrek ez digu inolako mesederik egiten.

Ministerioko bilera ere latza izan da: enpresen ordezkariak mesfidantza eta zalantza handiak erakutsi dituzte gogo-zientziei buruz. Armadako aginte nagusiko kideek ere kezka larriak dituzte: bake-soldaduei ezarritako programek akats anitz omen dituzte. Armadako goi karguen ustez, lotsagarriak dira desertzioen eta buru-hilketen zenbakiak. Eliza Bakarreko apaiz gorenak ere haserre azaldu dira.

Gure aldetik, azaldu diegu gogo-zientziak hastapenetan besterik ez daudela, espero izatekoak direla gure bidean akatsak eta atzerapausoak. Baina helburua hain handia izanik, ezin dugu amore eman. Etorkizun hobearen alde borrokatu behar dugu. Lan harremanen munduak arreta berezia eskatzen du, eta zientzia modernoak zeresan handia dauka etorkizuneko proiektu honetan.

Hala ere, lan-talde honek 505 esperimentuaren porrota onartu du. Langilearen erretiratzea gomendatu dugu.

—20..ko abenduaren 27a:

Koma egoera ezarri zaio 505 langileari, intulina shock baten bidez. Berriz ere hasi dugu azken hilabete hauen oroitzapenen ezabaketa programa. Ez dakigu bigarren ezabaketa honek nola eragingen dien 505en garunei, baina arriskatu beharra dugu.

Beste porrot honek ez digu adorea galarazi. Botika programak zein koma bitarteko mezu subliminalek balio terapeutiko handia erakutsi dute. Agian familia egoera ere kontuan hartu behar genuke hurrengoan. Aztertzeke modukoa da beste emazte egokiago baten aukera.

Ezin dugu etsi: Gizadiak eskertu egingen digu. Orain ez bada, etorkizunean.